

GAUZA TXIKIAK

Izar Foroni Ruiz de Larrinaga

Zerain

03:48 am. Izerdi artean garrasi ahul bat entzun zen. Beldurtuta esnatu zen; bere aurpegia zuri-zuri zegoen eta bere begiak ezari begira. Malko batzuk atera zitzaizkion, segundoen buruan negar zorrotada bihurtu zirenak. Korrika joan zen pasilloaren beste aldeko gelara. Hutsik. Bakarrik nago. Gauero-gauero gauza bera gertatzen zen. Goizean sukaldetik txutxu-mutxu batzuk entzun zituen. Baina ate hotsak bat-batean isilarazi zituen. Jonen gurasoek elkarri begiratu zioten eta irribarre handi batekin agurtu zuten. Baina Jon ez zen hain inozoa eta irribarre horrek ezkututzen zuena ikusteko gai zen. Samina. –Gaur ametsetan ikusi dut– ahots ahul bat entzun zen mahaitik.

20:25 Tinbrea. Jonek leihoari begiratzeari utzi eta sartu zen pertsonak esaten zuena entzuten kontzentratu zen. –Kaixo. Aitor Murua naiz, psikologoa. Jon hori entzutean ikaratu egin zen, baina entzuten jarraitu zuen. –Kaixo ni Marta

naiz eta hau Juan. –Zatoz sukaldera, mesedez. Jonekin hitz egin aurretik gauza batzuk argitu nahi ditugu. Psikologoa! Ez, ezta pentsatu ere pentsatu zuen eta hori saihesteko bertatik alde egitea erabaki zuen. 4. solairura igo zen, trastelekura. Berak ezkutatzeko moduko gela bat aurkitu nahi zuen bitartean, bere gurasoak geroz eta gertuago sentitzen zituen. Eskailera azpian argi zipitiz bat ikusi zuen iluntasunaren artean, gerturatu eta bertan harrizko pareta lodi bat aurkitu zuen. Zerbait sentitu zuen. Pareta ukitzen hasi zen. Pareta hark zerbait zuen. Harria. Beste harri mota batez egina zegoen. Bere testura eta usaina desberdinak ziren. Halako batean harri bat ukitu eta barrurantz mugitu zen eta harekin batera pareta guztia. Momentu horretan sekulako beldurra sentitu zuen eta bertan zegoen tunel luze eta estuak ez zuen inondik inora erakartzen, baina bere amaren ahotsa eskaileretan gora entzutean izutu eta sartu egin zen. Iluntasuna eta beldurra. Beste aukerarik gabe tunela jarraitu zuen gela txiki batera iritsi zen arte. Dena trastez beteta zegoen, argi zegoen gela hartan ez zela aspaldian inor ibili. Liburuak eta pergaminoak zeuden leku guztietatik eta egurrezko altzari handi eta ederrak zituen. Argi gelditu zitzaion gela hura altxorak gordetzeko egina zegoela. Gelaren erdian mahai handi bat zegoen, mahaiaren gainean irekita zegoen liburuari begira gel-

ditu zen, ondoan koaderno txiki bat zuen. Liburuak beregana erakartzen zuen. Irakurtzen hasi zen. Liburuaren izenburua begiratu zuen: “Hil ondorengoek sekretu guztiak” eta irakurtzen jarraitu zuen “Hainbat kondairak dioten moduan garai batean hildakoekin komunikatzeko modurik egokiena lizarrez egindako paperezko orrietan idaztea zen”. Jonek liburuaren ondoan zegoen koadernoari erreparatu zion, mutil azkarra zenez, berehala konturatu zen koaderno lizar orritz egindakoa zela.

22:45ak. Itzultzeko ordua. Koaderno eskuetan zuela irten zen tuneletik. Gelara sartu eta koaderno mahai gainean utzi zuen. Sukaldera joan zen eta ama iritsi zen. –Ez dut psikologo bat etortzea nahi. Bira erdi eman eta gelara joan zen. Koaderno hartu eta bere bolaluma gogokoenarekin idazten hasi zen:

Mikel Garmendia

Gaur azkenean zurekin hitz egin dezaket. Neure bizitza kontatu, neure sentipenak. Eta zorte pixka batekin erantzun egingo didazu. Faltan botatzen zaitut. Zu baitzinen nire bizian benetan laguntzen zenidan pertsona bakarra, benetan ulertzen ninduzuna eta benetan nirekin egoten disfrutatzen zenuena. Zu joatean ordea, benetan bakarrik gelditu naiz. Ez diot neure

bizitzari zentzurik aurkitzen. Gogoratzen al zara galdera honetaz? Uharte huts batera joan behar-ko bazina, bizitza guztirako, zeinekin joango zinateke? Beti dago horri buruz den tutoretzako klase bat, ezta? Beno, ni zurekin joango nintzateke eta izan daiteke norbaiti arraroa iruditzea mutiko batek bere anaia aukeratzea bizitza guztian ondoan izateko, baina zu bezalako anaia bat izanda, nire ustez, arraroa, beste norbait aukeratzea da. Zergatik aukeratuko zintudan? Denagatik. Nik nahikoa dudalako neure bizitza guztian zurekin bakarrik hitz egitea, nahiz eta ez erantzun, neure buruarekin ongi sentitzeko. Horrexegatik hartu dut erabaki hau; hemendik aurrera ez dut gehiago hitz egingo, zurekin ez bada. Jende gehienak tontokeria bat dela esango du. Baina zer axola zait niri jendeak pentsatzen duena? Zuk pentsatzen duzuna, ordea, bai axola zait. Zu nire heroia zarelako. Badakit ez zarela heroi bat kontsideratzen eta nik esaten nizun bakoitzean ezeztatu egiten zenuela, baina norbaiten beharra nuen bakoitzean laguntzeko prest egoten zinen, konpainia egiten zenidan bakarrik nengoenean, nahiz eta beti izan egiteko zerbait nirekin denbora galtzera etortzen zinen... Hauek denak gauza txikiak irudituko zaizkizu, baina gauza txiki hauek guztiak dira, pertsona handi bihurtzen zaituztena. Eskerrak eman nahi dizkizut, badakit berandu dela baina

zu ohartu ez arren egunero zure aurpegia ikus-
tean egiten nuen irribarrea nire eskerrak emate-
ko modua zen. Orain, ordea, nire irribarrearen
partez nire hitza emango dizut. Esan nahi dizu-
dan bakarra zera da: auto bat ez dela nahikoa
izango gu aldentzeko. Faltan botatzen zaitut eta
gutun hau idazten ari naizen bitartean ohartu
naiz hitz gehiegi esan dizkizudala. Gutun hau
idazten egon naizen denbora guztian gauza
bakar bat esan nahi nizulako. Maite zaitut. Jon
Garmendia 2012ko abenduaren 20a.

Jon negarrez hasi zen, bere indar guztiekin
egin zuen negar.

Olentzerori gutuna:

Kaixo Olentzero jauna: gustura asko idatziko
nizuke, baina desgraziaz badakit nire gurasoekin
hitz egiten ari naizela. Bestalde benetakoa zarela
pentsatu nahiko nuke beraz gutunarekin jarrai-
tuko dut. Aurten Gabonetarako Mikel itzultzea
nahi dut, baina badakit ezinezkoa dela, beraz,
lizar-orritz egindako koadernoak nahi ditut.
Aurkitzen dituzun guztiak. Mila esker. Jon.
Abenduaren 23a

Olentzero jauna:

Eskerrik asko. Jon. Abenduaren 25a